

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Udalak San Joan bezperako ekitaldi sinbolikoa egingo du

*Konstituzio plazan izango da 22:00tan, eta 120 gonbidapen zozketatuko dira aurrez aurre ikusi ahal izateko*

Aurtengo San Joan bezperan ez da ohiko ospakizuna egongo. COVID19 osasun-larrialdiaren ondorioz ezin da antolatu ekitaldi jendetsurik, eta beraz, Donostiako Udalak egun horretarako prestatzen ohi duen ekitaldia moldatu du ez-ohikoa izango den udari ongietorria egiteko.

Konstituzio plazak hartuko du ekainaren 23an, San Joan bezperan, ekitaldi sinboliko bat. Eta bertan, parte hartuko dute, Donostiako Orfeoia, Txistularien Udal bandak, udal korporazioak eta hiriko segidako dantza taldeetako bikote batek: Goizaldi, Arkaitz, Eskola, Gero Axular, Kresala eta Trebeska. Ekitaldia 22:00tan hasiko da eta ETBk zein Donostia – San Sebastian Festak-eko YouTube kanalak zuzenean eskainiko dute.

Aforoa murriztua izango da – gehienez erabiliko den espazioaren %60 erabili daiteke, betiere, pertsonen arteko 2 metroko tarte bermatuta –, eta ondorioz, 120 pertsonak aurrez aurre eserita ikusi ahal izango dute. Beraz, ekitaldia aurrez aurre jarraitu nahi duten pertsonak izena eman behar dute [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) webgunean eta 60 gonbidapen bikoitzen zozketan parte hartuko dute. Izena emateko epea ekainaren 17an, asteazkenean, amaituko da. Eta zozketa ekainaren 18an egingo da eta Udalaren YouTube kanalean zuzenean ikusteko aukera egongo da.

Ekitaldiaren behar logistikoak direla-eta, Konstituzio plazako sarbidea mugatu beharko da ekainaren 23ko 20:30etik 23:30era. Tarte horretan plazara bakarrik sartu ahal izango dira, plazan bertan bizi diren bizilagunak zein gonbidapena lortu duten pertsonak.

Kultura zinegotzi Jon Insaustik azpimarratu du, “Victoria Eugenia antzokiaren 0 Galak hiriko antzokietan aurrez aurreko kultura jardueren antolakuntza ikusteko balio izan bazuen, udari ongietorria egiteko errituak balio izango du hurrengo hilabeteetan bide publikoan antolatuko diren ekitaldien antolakuntza nolakoa izango den ikusteko”.

[https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com\\_flexicontent&view=items&cid=47&id=92908&Itemid=77&lang=eu](https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&cid=47&id=92908&Itemid=77&lang=eu)